

Bilbon, 1985.eko Maiatzaren 31an arratsaldeko 4etan, Plaza Barriko bere egoitzan bildu da Euskaltzaindia. Etorri dira: L. Villasante burua, J. Haritschelhar buruordea, P. Altuna, X. Diharce, A. Irigoyen, F. Krutwig, E. Larre, P. Salaburu, J. San Martin eta J. M. Satrustegi, euskaltzainak. J. A. Arana, P. Arregi, R. Badiola, J. G. Etxebarria, K. Etxenagusia, X. Gereño, J. L. Goikoetxea, X. Kintana, I. Laspiur, J. L. Lizundia, P. Uribarren eta J. J. Zearreta, euskaltzain urgazleak, J. M. Satrustegi idazkari dela.

J. L. Davant, E. Knörr, J. Hiriart-Urruty, P. Larzabal eta F. Ondarrak ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarrea.

Apirileko batzar agiria onartu da.

Maiatzaren 20an Madrilen hizkuntz Akademien arteko bilkura egin zela, esan du idazkariak. Giro lasaian aurkeztu zen bertan Estatuko hizkuntza gutxienduen egoera. Valencia eta Mallorkako arazoa ere aipatu zen. Espainiako Erret-Akademiak ez zuen ezer berezirik aurkeztu. Azpimarratzekoa da Euskaltzainburuak irakurritako txosten funts haundikoa. La Coruñan egingo da datorren udazkenean bigarren batzarrea, gai zehatz batzu oinarritzat harturik. Barzelonan egin gogo da hirugarrena eta Euskal Herrian izango litzateke lehen txandaren amaiera. Beharrezkoak ikusten dira harreman hauek.

Lekarozko Barne Jardunaldietan aurkeztutako batzorde zerrendak birrestu dira.

Iruñeko bulego berria prest dagoela, esan du Satrustegik. Ekaineko batzarrea bertan egingo du Euskaltzaindiak, hilak 28, azken ostiralean. Mailegu hitzen lana burutzeko, bezpera arratsaldean euskaltzainak biltzea komeni da.

Donostiako ordezkaritza non ezar daitekeen ikusten izan dira J. Kortajarena Diputaduaekin, J. San Martin, J. M. Satrustegi eta J. L. Lizundia. Orain arte Kirol arazoan bulegoa zegoen Prim kaleko bi solairu ikusten dira gaurkoz helduenak. Oso aldaketa gutxirekin egoki daitezke.

Campion-Broussain gure azpi-elkargoko idazkaritza bertan uzteko gogoia agertu du, idatziz, J. M. Satrustegik. Datorren batzarrean astiro ikusteko utzi da eskaria.

Euskera 1984 (2) zenbakia aurkeztu eta banatu da batzartuen artean. Euskaltzainburoak 1983-1984 urteetako *Oroit-idazkia (Memoria)* azaldu du bestalde, gure aspaldiko hutsunea betetzen duen lana.

Batzordeen berriak

Hiztegitintza. Lekarozko Barne Jardunaldietan esan bezala, hiztegitintza batzordeko idazkari den M. Zalbidek plangintza orokor baten egitura aurkeztu zion Euskaltzaindiari. Bost bat urteko epe laburrean burutzekoak ikusten dituen lanak hauek dira: Eskuarteko Hiztegi Nagusia amaitzea, lexikologiako irizpideen finkapena, hala nola, maileguzko hitzen idazkera, hitz elkartuen azterketa, erakartuen arazoa eta sintagma lexikala. Bilketa lanean, gaur erabiltzen diren hitzen bilduma egin behar litzateke, prosa arruntean nahiz irakaskintzan.

Geroko beste epe batean egiten joateko aurre-asmoetan sartzen ditu: hiztegi arau emalea, jakintzagai eta bizibide berezietako terminologia teknikoa, eta euskara ez dakitenei erakustean maiztasun-prestutasunezko hiztegia. Noizbait egin beharko da, gainera, euskalkien hiztegia ere.

Lan premiatsuenetatik edo helduen dauden gaietatik hasi daiteke ekintza hauen burutzen. Giza-baliabideak eta dirulaguntza kontuan eduki behar dira. Langaien aurreasmoa urteroko aurrekontuen epe egokian aurkeztu beharko zaie agintariei. Hune honetan Euskaltzaindiari dagokionez, lexikologi irizpideak finkatzen jarraitzea ikusten da beharrezkoena. Maileguzkoen ondoren hitz elkartuen zehaztapan lana hasi dezake.

Bertsolari batzordea. Aurtengo bertsolarien txapelketari buruz sortutako istiluen ondoren, bezperan batzordeak eztabaidatutako punduen berri eman du J. San Martin, antolakizun azpisailleko idazkariak. Arduradunen proposamena entzun eta zenbait gauza zehaztu ondoren, hurrengo adierazpen hau banatzea onartu da:

“Aurtengo Bertsolari Txapelketa dela eta, zenbait iritzi desberdin hedatu da. Euskaltzaindiak prentsa-bidez ikasi duelarik bertsolari talde batek “txapelketa hobea” antolatu nahi duela, gaurko bileran hauxe erabaki du:

Nahiz Euskaltzaindia aspaldi honetan aritu den bertsolari txapelketak apailatzen, gerra aurrean Euskaltzaleen Elkarteak ekin zion bide beretik eta bertsolaritza indartu nahirik, bertsolari talde batek antolatzeko gogoia erakutsi duenez gero, Euskaltzaindiak ez du oraingoz txapelketarik eratuko.”

Dialektologia. Atlas-en batzordea atzo goizean bildu zela aditzera eman du J. Haritschelhar jaunak. Grabapenetako zati bereziak entzun eta aztertzen saiatu ziren, traskripzio lanerako iritziak bateratzeko asmoz. Lan interesgarri eta baliotsua gertatu omen zaie.

Argitalpenak. Batzordekide gehienak bertan zirenez, toki-izenen argitalpenei buruz mintzatu da idazkaria, eta proposamen bi aurkeztu ditu: 1) J. M. Jimeno Jurio-ren Iruñerriko bilketa lanen lehen alea, *Cendea de Zizur*, argitaratzeko diru laguntza lor daitekeela. 2) Era berean, E. Goyhenetche jaunak aspaldi burutua zuen *Onomastique du Nord du Pays Basque XI-XIV* mendeetako pertsona izenen lana kaleratzeko laguntza ere eskura genezakeela.

Finantziabidea lortu bezain laster lan hauek plazaratzen saiatzeko oniritzia eskatu zaio batzordeari. Begi onez ikusi da esandakoa.

Euskaltzainen izendapenaz

Lekarotzen mahai gainean gelditutako eztabaida korapilatsu bat agertu da azkeanean. Euskaltzain ezinduen aulkiak izendapen berriekin bete beharko liratekeela, zioen eskariak. Villasanteren ustez, kontraesan bat dago ahalmen hori aitortzen duen Barne Erregeletako 39. artikulua eta hogeitalau euskaltzainen kopurua mugatzen duen Arautegiko artikulua artean. Hogeitabost izango lirateke une horretan izendatuak. Beste batzuk ez dute inolako kontraesanik sumatzen eta, iritziak iritzi, lege arazoa dago funtsean. Bigarren ikuspegi garrantzitsua, egoera honetan Euskaltzaindiari komeni ote litzaiokeen ala ez zorrotasunarekin horrelako jokabidea hartzea, izan da.

Aburuak elkarretaratu ez badira ere, garbi ikusitako ondoren bakarra, zera da: Euskaltzain batek bere kabuz kargua uzten duela benetan adieraziko balu, hutsunea legezkotzat eman lezake Euskaltzaindiak eta haren ordez euskaltzain berria aukeratu. Berdinak ezin du berdina baztertu, dio Euskaltzainburuak.

Bigarren istilua, batzarreetara ez datozen euskaltzainen botzari zegokion, eta ahalmena edo boterea mugatzea proposatzen zen. Ezin zaiela euskaltzainei berek nahi duten eran botoa emateko eskubiderik uka, esan da. Hauteskunde batean gai soil batentzat espreski emandako botza ezin da, noski, beste arloetan baliatu. Botza emaleak orokorki edozein gauzatarako ematen duela aitortuko balu paperean, zalantzarik gabe horrela erabil dezake botere hori haren ahalmena dakarrenak.

Nola nahi ere, kasu bakoitzean ikusi beharko da idatziak daraman mezuaren zabalatasuna ala hertsidura.

Txostenak

Gabriel Aresti zenaren hamargarren heriotz urtemuga gogoratu du gaur Bilboko egoitza berrian Euskaltzaindiak. J. San Martinek Arestiren poema itzulpenak aipatu ditu bere txostenean. 1954-ean hasi zen Aresti *Euzko Gogoan* idazten. Bi urteren buruan, *Egan*-en 1956.eko azken alean atera zuen bere lehen itzulpena. Santillanako Markesaren "La Serranilla" aipatu du, besteak beste, bere itzulpenen artean. Atzerriko olerkarien lanez interesaturik agertu zen eta txekoan itzulpenak Tauer jaunari eskatu zizkion. Quixote euskarara itzuli nahian ibili zen denbora batean, eta adiskideak ahalegindu ziren hori burutik kentzen. Originala gazteleraz dagoenez, nork irakurriko zuen gure artean euskaraz?

"Gabriel Aresti euskararen batasunaren eragile" izenburuarekin gertatu du X. Kintanak bere txostena. Euskaldunberriaren ikuspegitik hartu du lehenik olerkariaren nortasuna. Berea ez zuen hizkuntza, euskara alegia, berreskuratzea izan zela G. Arestiren helburua, esan du. Txostengilearen ustez, sormen hizkuntza ez da nahi eta ezpada amaren bularrekoa.

Bilboko giro arrotzean euskara ikasi eta egunero baliatzeko erabilpena bultzatzea, ero txalogarrien erueda deitu du. Baina batasunaren aldeko jokabidea izan zuen Arestik eraginkorra. Lehen urratsetan agertzen zaigu bere izena; *Batasuna-*

ren kutxa da arlo honetan bere ekintza zaratatsuena. Une batez c/z nahastuz eta abar idazkera anarkikoari ekin bazion, erreakzio baikor baten bultzatzeko izan omen zen. Baina, batasunaren izenean Bilbon bizkaierari bizkarra ematea izan zen, behar bada, bere buruarentzat erabakirik gogorrenetakoa.

J. A. Arana Martijak, azkenik, Arestiren olerki bat 350 hizkuntzataraz itzulia izan dela, esan du. F. Oroz Arizkuren irakasle nafarrak bultzatu du Tubingan itzulpen hau eta zenbait hizkuntzatan sortutako bitxikeriak aipatu ditu. Bibliaz landa egin den itzulpen lanik zabalena omen da hau. Dirudienez, azken berria beste hizkuntza batera itzuli delakoa dugu. 351 mintzaitan errepikatu da euskaldun batek plazartutako "Aitareten etxea".

Eta berri honekin amaitu da batzarrea eta Aresti zenaren goratarrea.

Euskaltzainburua
Fr. Luis Villasante

Idazkaria
Jose M.^a Satrustegi